

# Berrigara



## Justiziaz

Justizia administrazioa euskalduntzeko taldeak lanean dihardu Bergaran





# RENAULT

**Renault Laguna berriak  
toki harrigarrietara eraman zaitzake**



**Laguna Authentique 1.6 (110 cv) 16V**  
2.766.000 pezetatik aurrera\*

\*Prever plana (gasolina) barne



## MECA

Erakusketa eta tailerra: Amillaga, 5. BERGARA. Tel.: 943 76 40 68

Erakusketa eta tailerra: San Andres auzoa. ARRASATE. Tel.: 943 71 24 72





# Mainstreaming, berdintasuna suediar erara

Nora Palmitano

**E**rakusketa interesgarri bat ikusteko aukera izan dut joan den asteburuan. "Haur maiteak" izenpean bildutako argazki eta testu ederrez gozatzeo parada. Argazkietan gizonetzkoen eta haurren arteko harremanak islatzen dira; testuetan, berriz, aiten, irakasleen, haur-hezitzaileen iritziak. Nirekin zihoazen gizonetzko biak ere oso gustura atera dira Ulla Lemberg argazkilari feministak sortutako erakusketatik.

Suediar Gobernuak antolatutako erakusketa da; sentsibilizazioa lortzeko ekitaldia, berdintasunerako plan orokor baten barruan hain zuzen. Bat, beste askoren artean. Horixe jakin dut, irtererakoan jasotako liburuxkak eta dibulgazio-materiala irakurtzean.

Berdintasuna suediar erara liburuxkan zehazten da sexuen arteko berdintasunerako bidean egindako guztia. Ia ez da arlo bat bera ere ukitu gabe gelditu (epaileak ere lortu dute eguneratzea!). Irakurtzerakoan ezin izan dut uxatu burura zetorkidan oihua: "zein urrun gauden!".

Halere, aipatutako txostenak arrisku batez ohartarazten gaitu. Alegia, datorren urteko ekonomiaren beherakadak berriz

ere emakumeengan joko duela bortitzago. Erne egoteko deia egiten du.

Berdintasuna lortzeko politikak mainstreaming estrategian du ardatza. Mainstreaming. "Korronte nagusia", literalki itzulita; baina "lerro nagusia" egoikiago, seguru asko.

Estrategia honek ziurtatu nahi du arlo sozial, eta maila guztietan, eginbeharrak diseinatu, antolatu, martxan jarri eta baloratzeko orduan emakumeek zein gizonetzkoek hartuko dutela parte. Ez dute

'aukera berdintasunaz' hitz egiten, errealitatean eta egunero agertzen den berdintasunaz baizik.

Honek ez du esan nahi edozein lan egiteko erdia gizonetzkoak eta erdia emakumeetzkoak izango direnik. Ezta lan guztiak gizonetzko eta emakumezkoen artean egingo direnik ere. Mainstreaming-ek esan nahi du erabaki guztietan, antolakuntza guztietan, ... emakumearen ikuspegia ere jasoko dela.

Suediar udaletxe batzuek beren politiken eragin ekonomikoak eta ingurumen-eraginak neurtzen dituzten moduan, politikek berdintasunean duten eragina ere neurtzen dute: emakumeek zein gizonetzkoek hartzen dute parte tramitazio-fase guztietan, gestio guztietan eta erabaki guztietan? Zer eragin erreal dute hartutako erabakiek herritar emakumezkoengan eta herritar gizonetzkoengan? Baliabide-banaketan, zenbat heltzen dira nesken gaino eta zenbat mutilenganaino?

Laster batean berdintasunak ere izango du bere "labela" Suedian. ISO agiria lortzeko, berdintasuna egiaztatu behar!

Hori ikusteko bada, 100 urte gehiago betetzeko prest nago! Ala 100 urte barru oraindik...?<

«Suediar udaletxe batzuek beren politiken eragin ekonomikoak eta ingurumen-eraginak neurtzen dituzten moduan, politikek berdintasunean duten eragina ere neurtzen dute»

barruan



**Isabel Lopez**

Turismo Bulegoko arduraduna

«Turistak harrituta geratzen dira Bergarak dituen monumentuekin»

6.



**K. Larrañaga**

Eroski bidaiak

«Balnearixo batera juatia da neretako asteburu baterako plan ideala»

13.



**Markel Larrañaga**

Shotokan karate taldekoa

«Espainiako karate txapelketan egotea sarria da niretzat, ez nuen sailkatzea espero»

17.



hi, gazte!



## BEKAK

### Literatura.

Principe de Asturias Fundazioa.  
Emilio Alarcos beka, literaturako edozein generoko sorkuntzako proiektuak.  
Epea: maiatzaren 21a.

### Musika, dantza...

Gipuzkoako Foru Aldundia.  
Especializazioa eta hobekuntzako ikastaroak egin nahi dituztenentzako.  
Musika, dantza, antzerki eta zaharberritze arloetan espezializazio ikasketak egiteko beka. Epea: maiatzak 15.

## JARDUERAK

### Murgil zaitze 2001.

Gipuzkoako Foru Aldundia. Trukaketak 14-17 urte bitartekoendako. Zazpi edo 14 eguneko txandak (euskaraz eta gaztelaniaz): kirol ekintzak eta ingeles ikastaroa. Zozketarako izena ematea: Gazte Informazio Gunea (Bergarako kultura etxea). Epea: apirilaren 25etik maiatzaren 7ra. Informazioa: 943-779157/8.

## IKASTAROK

### Litografia.

Arteleku. Gipuzkoako Foru Aldundia.  
Litografia-tekniken esperientzien gaineko tailerra. Epea: maiatzaren 25a.

### Langabeak.

Azpeitiko Urolalde heziketa zentroa.  
Azpeitia. Ofimatika, internet, ingelesa...  
Ikastaro guztietan, praktikak enpresatan egiteko aukera.  
Epea: ikastaroa hasi baino bi egun lehenago.

## SARIAK

### Kazetaritza.

Andoaingo Udala. Euskarazko kazetaritzako XIII. Rikardo Arregi saria.  
Epea: maiatzak 25.

## LAN-ESKAITZAK

### 281 Ertzaintzaren Oinarritako

#### Eskalako Agente.

Eusko Jaurlaritza. Herrizaingo Saila.  
Escola graduatua, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo balioidea.  
Epea: apirilaren 25a.

## KARNETAK

Nazioarteko Aterpekeide, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatoz Gazte Informazio Gunea.

## INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA: Bergarako kultura etxean.  
943 77 91 57. gzerbitzua@euskalnet.net  
Osteguna eta ostirala: 16:00-20:00.  
Larunbata: 09:30-13:30.  
Martxoaren 19an, 20an eta 21ean, ordutegi berezia: 09:30-13:30.

**OHARRA.** Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizueke Gazte Informazio Gunea igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketaren eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazteei nahiz probintzia guztioei informazioa zabaltzeko. Mila esker.

## bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

### Bikotx

Bergara aldera *bikoitz* ere entzun daiteke, Elgeta aldera *bikotx*.


Bi atal edo parte berdin dituen.

– Arrautza au gorringo-bikotxa da.

– Batzuk potro bakarrek izateittuk eta beste batzuk potro bikotxak.

– Basarri batzuk bizitza bakarrekuak die eta beste batzuk bikotxak.

Izenaren ondotik gehienetan, izen konposatu gisan.



## hau giroa!

San Juan auzoan jasotako datuak

Luis Mari Agirre

	Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria
<b>Apirilak 12, eguena</b>	13 °C	6 °C	– 1/m <sup>2</sup>
<b>Apirilak 13, egubakoitza</b>	13 °C	6 °C	– 1/m <sup>2</sup>
<b>Apirilak 14, zapatua</b>	13 °C	9 °C	– 1/m <sup>2</sup>
<b>Apirilak 15, domeka</b>	18 °C	0 °C	– 1/m <sup>2</sup>
<b>Apirilak 17, astelehena</b>	15 °C	3 °C	0,6 1/m <sup>2</sup>
<b>Apirilak 17, martitzena</b>	16 °C	3 °C	0,7 1/m <sup>2</sup>
<b>Apirilak 18, eguaztena</b>	12 °C	8 °C	0,3 1/m <sup>2</sup>

## mezak

### Santa Marina

Domekak: 11:30, 13:00.  
Zapatuak: 19:00.  
**San Pedro**

Domekak: 09:30, 12:30.  
Zapatuak eta lanegunak: 19:15.

### Sierbak

Lanegunak: 19:30.

### Osintxu

Domekak: 11:30.

Zapatuak: 19:00.

### Elosu

Domekak: 10:30.

### Ubera

Domekak: 10:30.

### San Juan

Domekak: 11:00.

### San Prudentzio

Domekak: 10:30.

## URTE-MEZAK

### Santa Marina

Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.

### San Pedro

Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

### Labegarieta

Domekak: 11:00.

### San Lorenzo

Zapatuak: 20:00.

### Angiozar

Domekak: 11:00.

### Monja Zaharrak

Domekak: 18:00.

Zapatuak eta lanegunak: 20:00.

### Mizpirualde

Lanegunak: 11:45.

Zapatuak: 17:30.

### Antzuola

Domekak: 09:00, 11:30.

Zapatuak eta lanegunak: 19:30.

### Uzarraga

Domekak: 10:00.

## urbanoa

### San Lorenzo/San Juandik irteerak

07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Mugertza, Zubieta, San Martin plaza, San Antonio (Zumelaga aurrean), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

### Labegarieta/Olabarrenetik irteerak

07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

## kontuan hartu...

### FARMAZIAK

#### EGUAKITZA 20:

ESTELLA. Matxiategi 5. . . . . 943 76 19 63

#### ZAPATUA 21:

MOZOS. San Pedro 4. . . . . 943 76 12 15

#### DOMEKA 22:

MOZOS. San Pedro 4. . . . . 943 76 12 15

#### ASTELEHENA 23:

CAMACHO. Oxirondo 4. . . . . 943 76 11 74

#### MARTITZENA 24:

PUY. Barrenkalea 25. . . . . 943 76 16 87

#### EGUAZTENA 25:

GUALLAR. San Antonio 5. . . . . 943 76 11 05

#### EGUENA 26:

ESTELLA. Matxiategi 5. . . . . 943 76 19 63

### OGIA

DOMEKA 22 . . . . . Konde

### TELEFONOAK

#### OSASUNA / LARRIALDIK

Anbulatorioa (txanda) . . . . . 943 76 24 40

Bergarako udaltzaingoa . . . . . 943 77 91 06

Antzuolako udaltzaingoa . . . . . 943 76 62 46

Ertzaintza . . . . . 943 76 53 40

Osasun Etxea . . . . . 943 76 24 40

Asepeyo . . . . . 943 76 16 43

Pakea . . . . . 943 76 13 49

Angiozarko medikua . . . . . 943 78 90 27

Antzuolako medikua . . . . . 943 76 62 23

Odol emaleak . . . . . 943 76 16 24

Alkoholiko anonimoak . . . . . 943 76 51 06

#### GARRAIOAK

Taxiak . . . . . 943 76 19 50

#### UDALA

Bergarako udaletxea . . . . . 943 77 91 00

Antzuolako udaletxea . . . . . 943 76 62 46

Udal Artxiboa . . . . . 943 77 91 32

Igerilekuak . . . . . 943 76 20 51

Kultur Etxea . . . . . 943 77 91 58

Liburutegia . . . . . 943 77 91 62

Kiroldegia . . . . . 943 76 56 41

Mizpirualde Egoitza . . . . . 943 76 13 68

#### BESTELAKOAK

Epaitegia . . . . . 943 76 14 92

Erregistroa . . . . . 943 76 13 15

Jardun . . . . . 943 76 36 61

Idolaz . . . . . 943 76 65 08

Jubilatuaren Etxea. Bergara . . . . . 943 76 21 40

Antzuolako jubilatuaren elk. . . . . 943 76 62 71

Postetxea . . . . . 943 76 26 85

Bedelkar . . . . . 943 76 04 68

Akulu AEK . . . . . 943 76 05 18

Udal euskaltegia . . . . . 943 76 44 53

Bergarako notaritza . . . . . 943 76 10 73



**oharrak**

■ **1936an jaiotako bazkaria** apirilaren 28an Tartufon, 14:30ean. Txartelak Eusebio II tabernan eskura ditzakezue hilaren 25era arte.

■ **1943ko kintoen afaria:** apirilaren 28an Antxonin.

Aurretik, hildakoen oroimenezko meza izango da. Izena ematea, San Pedro kaleko Azkarate tabako dendan.

■ **1965ean jaiotako afaria:** maiatzaren 5ean Txarrantxan, 22:00etan. Aurretik Pol-Polen elkartuko dira, 19:00etan. Izena ematea Etxagi, Pol-Pol edo Popi's tabernetan.

■ **Odol-ematea:** eguaztenean, hilak 25, Seminarioan, 18:30ean. Odol emaile berriak behar dituzte.

■ **EAJ-EA:** maiatzaren 13ko hauteskunde-etan botoa postaz eman nahi dutenek Batzokira (astebarruan 9:00- 21:00) edo Alkartetxera (astebarruan 11:00-12:00 eta 17:00-20:00 eta zapatuetan 10:00-14:00) jo dezakete.

■ **EH:** hauteskundeetan botoa postaz eman nahi dutenak Arrano zaharretik (Irizar kalea 2, lehen pisua) pasa daitezke (astelehenetik egubakoitzera, 11:00-13:00 eta 18:00-20:00).

**zorionak!**



**Asier Garcia**  
25ean urtebete.  
Urte askotarako!  
Aitor eta gurasoak.



**Jone Eguren**  
26an 6 urte.  
Urte askotarako!  
Iratzi eta etxeokak.



**Aitor Elorriaga**  
20an 11 urte.  
Urte askotarako!  
Etxeokak.



**Patxi**  
26an urtebetetzea.  
Urte askotarako!  
Altzarteko peña.



**Mari Cruz Gantxegi**  
26n 31 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Markos Gurrebaso**  
25ean 79 urte.  
Urte askotarako!  
Etxeokak, Iker eta Aitziber.



**Juanan**  
22an urtebetetzea.  
Urte askotarako!  
Altzarteko peña.



**Mikel Zubizarreta**  
23an urtebete.  
Urte askotarako!  
Garazi eta gurasoak.



**Garazi Agirrezabal**  
26an 5 urte.  
Urte askotarako!  
Jone, Aitor, aita eta ama.



**Oihane Agirre**  
21ean 10 urte.  
Urte askotarako!  
Unai eta gurasoak.



**Itziar Casanellas**  
25ean 9 urte.  
Urte askotarako!  
Etxeokak.



**Irantzu Casanellas**  
22an 7 urte.  
Urte askotarako!  
Etxeokak.



**Nerea Blazquez**  
20an 8 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Itsaso Igarza**  
24an 3 urte.  
Urte askotarako!  
Leire eta gurasoak.

*Hurrengo alean,  
apirilaren 27tik  
maiatzaren 3ra  
bitartekoen zorion agurrak  
argitaratuko ditugu.*

**jardunen agenda**



■ **Topaguneko udalekuak 2001 urterako:**

DBH 1. eta 2.mailakoei zuzenduta. Uztailaren 16tik 30era Ubidean (Bizkaia eta Arabako mugan). Inguruko herrietako gazteak ezagutzeko aukera paregabea.

Izena emateko azken eguna maiatzaren 4a da.

■ **Nutrizio ikastaroa:** proteinak, koipeak, hidratoak, janari-taldeak eta abar. Maiatzaren 2tik ekainaren 7ra (30 ordu). Bi ordutegi aukeran. Informa zaitez Jardunen. Bazkideentzat prezio berezia!

■ **Hitzaldia:** nutrizioari buruzko hitzaldia, apirilaren 25ean, eguaztena, arratsaldeko 18:30ean kultura etxean.

■ **Pegatina lehiaketa:** Bergarako jaixetako pegatinetan hik asmatutako esaldia agertzea nahi badok/n, asmatu esaldia eta bota ikastetxe eta tabernetako kaxetara maiatzaren 10a baino lehen. Saria: 10.000 pta!

**EDEL TAPIZDENDA**

*Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu*

**Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiara-motarik egokienaren berri eskatzea.

**Bidekurutzeta 14 BERGARA**


**SEGUROS LAGUN ARO ASEGURUAK**

**AGENTEA**



**Telefonoak: 943 76 23 30 eta 943 76 41 54**  
**Faxa: 943 76 41 54**  
**ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00**

**OHARRA BEZEROEI:**  
*Ramon Maria Liliko bulegoan arazo teknikoak ditugunez, aldi baterako bulegoa BELANBIDE KALEAN izango dugu. Ongi etorri, denok.*





**Turismo bulegoko arduraduna da, aurten, Isabel Lopez. Aste Santu atarian, apirilaren 6an, ireki zuten eta hilaren 22a arte izango da zabalik. Udan ere, ekainaren 15etik irailaren 30a arte, Isabel Lopezek izango du turismo bulegoko ardurua.**

**G.** Zenbat kontsulta jaso duzue turismo bulegoan Aste Santuan?

**E.** Apirilaren 6an ireki genuenetik, atzo arte, 16a arte, 208 kontsulta jaso ditugu. Kontuan izan behar da apirilaren 22a arte irekita egongo dela bulegoa, eta oraindik ere jende gehiago hurbilduko dela. Baina, egun horietako datuak ikusiz, aurreko urtekoen antzerakoak direla esango nuke.

Jende gehiena Eguen Santutik domekara bitartean hurbildu zen. Batez beste, 35 lagun inguru eguneko.

**G.** Katalan asko izan da aurten ere?

**E.** Bai. Baina madrildar asko ere etorri da. Bestalde, euskaldunak ere nahikotxo etorri dira, batez ere, bizkaitarrak. Gipuzkoarrak ere hurbildu dira, eta gutxien, arabarrak. Bergarakoak bertakoak ere, geroago eta gehiago. Batetik, kanpora joango direlako oporretan eta toki horretako informazioa eskatzeko, eta bestetik, kanpotik etorriko zaizkien lagun edo familiakoei gure inguruak erakusteko eskuorri bila.

Horrez gain, kanpoko lagunak edo familiakoak etorriko zaizkien bergarrek bisitaldi gidatuak eskatzen dizkigute. Horrela, kanpoko herria erakusten diete eta eurek ere herria hobeto ezagutzeko aukera izaten dute.

**G.** Badago hona hurbiltzen direnen profirik?

ISABEL LOPEZ

Turismo bulegoko arduraduna

## «Turistak harrিতuta geratzen dira Bergarak dituen monumentuekin»



Isabel Lopez arrasatearra da, aurten, turismo bulegoko arduraduna.

**E.** Jeneralean, hona hurbiltzen direnek Oñati, Zumarraga... ikusten dituzte. Batez ere, barnealdeko turismoa egiten dute. Batzuek kostaldea ere bai, jakina. Horrez gain, hogeita bost urtetik gorakoak izaten dira. Eta batez ere, bikoteak edo familiak izaten dira.

Ostatua hartzeko orduan, baserri turismoko

**«Turistek izugarri eskertzen dituzte Bergaran egiten diren bisitaldi gidatuak: jende mugarik ez dago, eta doan dira, gainera»**

etxeak nahiago izaten dituzte.

**G.** Zein arrazoiengatik hurbiltzen dira Bergara? Non izan dute hemengo berri?

**E.** Denetarik dago. Batzuk etortzen dira hemen familiakoak dituztelako. Beste batzuk turismo bulegoren baten eskuorriren bat ikusi dutelako eta atentzioa eman dielako.

Katalanen kasuan, bada beste zerbait, izan ere, Bergarako Udalak promozioa egiten du Kataluniako egunkari baten, eta horren bidez, Bergararen berri izaten dute. Hori dela eta, Bergararen gaineko eskuorri asko katalanez ditugu.

**G.** Zer gustatu zaie gehien turisteei?

**E.** Guztia; esango nuke. Izan ere, bisitaldi gidatuak egiten ditugunean, jendea oso harrিতuta geratzen da.

Gainera, bihotzez eskertzen dituzte bisitaldi gidatuak. Bulego askotan ez da bisitaldi gidaturik egiten, eta egiten diren askotan ordaindu egin behar da, eta gainera, oso pertsona kopuru zehatzarendako dira. Hemen ez, doakoak dira bisitak, eta gainera, ez dago kopururik, bi lagun badira, ba, bi dira, eta horiek jasotzen dute bisita gidatua.

**G.** Bergarak, orduan, badu turistak erakartzeko nahiko xarma.

**E.** Bai, badu. Kontuan izanda, gainera, bisitaldi gidatuetan ezin dela herri guztia erakutsi, denbora mugatukoak dira eta.

Bergarak dituen historia eta artea zoragarriak dira. Turistak, batez ere, monumentu bila datozela uste dut, eta hemen aurkitzen dituzte.

Kultura eta gastronomia ere ezagutu nahi izaten dituzte, baina, batez ere, monumentuak.



## Bi erraldoi berri Pazkoetako zapatuan egingo den alardean

**Lehenagokoak baserri-  
tar bikotea osatzen ba-  
zuten, bikote berriak ka-  
letar dotoreak izango di-  
ra. Bestalde, jai egita-  
raua ia prest dago, eta  
hainbat berritasun izan-  
go dira.**

Aspalditik zeukaten udal arduradunek buruhandi, erraldoi eta kiliki konpartsa sendotzeko helburua, erraldoiei dagokienez, batez ere. Izan ere, bi bakarrik daude, eta beste birekin osatzea erabaki dute. Pazkoetan estreinatuko dira. Mende hasierako gizon eta emakume oso dotoreak errepresentatuko dituzte, eta Kukuma taldeko panpinagileek egin dituzte.



Baserriar erraldoi bikoteari, kaletar bikote dotorea gehituko zaio. ARTXIBOA

Orduko janzkera kopiatzeko orduan, Eulalia de Albusua argazkilariaren irudietan oinarritu dira, hark erretratatzeko zituen pertsonen jantzietan. Konpartsa bu-

ruhandiek ere jantzi berria estreinatuko dute. Estreinaldia Pazkoetako zapatuan egingo da, eta udalak konpartsen alardea egiteko asmoa du. Horretarako, ingu-

ruko herrietako konpartsak gonbidatuko ditu.

### ZEZEN-PLAZA

Ninika loradenda parean egiten ari diren etxebizitzak direla eta, zezen-plazaren kokapena ez dago argi. Udaleko arduradunak bus geltokian jartzeko aukera aztertzen ari dira, eta geltokia beste toki batera eraman.

### ROCK KONTZERTUAK

Bideberriko kontzertuen egitaraua zehaztuta dago: egubakoitzean U.K. Subs, Sin City Six, La Broma de Satan eta Fly Shit; zapatuan, Black Malos, Sex Museum, Cannonballs eta Cool Panic; astelehenean, Naco Goñi, Audience, Requiem eta X-at.

## Amillagako zubia ireki dute sei hilabete ostean

**Dagoeneko** ireki dute saihesbideko Amillagako irteera. Apirilaren 10ean, hain zuzen ere, eta egunotan margotze lanetan aritu dira. Zubia urriaren amaieran itxi zuten, Eibar-Gasteiz autobideko lanengatik, eta itxita egon da ia sei hilabetez. Denbora horretan biribila eraiki dute, eta baita zubiaren muturreko ertzak zabaldu ere. Biribilak zirkulazioa errazteko helburua du, izan ere, hantxe bertan autobiderako sarreretako bat egongo da, Hondartza baserriaren alboan.



A  
R  
R  
A  
N  
O



**Taberna**

Kruz Gallastegi BERGARA

# ETXEBERRIA

## ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65





# Egoitzaren historia bilduko dute San Joxepeko kideek

**San Joxepe** erretiratu eta pentsiodunen elkarteak zuzendaritza batzordearen erdia aldatu berri du. Bost lagunek kargua utzi, eta haien ordez Felix Garai, M<sup>a</sup> Asun Plazaola, Nieves Gallastegi, Juan Manuel Iturralde eta Jesus Ruiz de Azua dira batzordeko kide berriak apirilaren 5etik, elkar-tearen batzar orokorra egin zutenetik.

Bestalde, batzarrean 2000 urteko balantzea egin eta, elkarteak 2001 urterako dituen asmo eta helburuen berri eman zuten. Nagusiak hobekuntza helburuak dira: esaterako, zahar etxearen historia liburu batean biltzea, eta bazkide berriekin batzartzea haien interesak ezagutzeko asmoz, eta baita elkartearen jardueretan parte hartzeko aukera eskaintzeko ere. Horrez gain, iaz kaleratzen hasitako 'Obetzten' aldizkariak jarraipena izango du aurten, eta hiru hilabeteko maiztasuna izan-



Apirilaren 5ean egin zuten San Joxepeko kideek urteko batzar orokorra.

go du seguruenik. Bestalde, hainbat ekitaldi kultural, sozial eta aisirakoak ere antolatuko dituzte urtean zehar. Dagoeneko, hileko bizpahiru aurrez ikusita dituzte San Joxepe elkarteko kideek.

## SAREAN BARRENA

Iaz hasi eta aurten ere jarraipena emango dioten beste arlo bat informatikarena da. Gogoratu, Gizartekintza eta La Caixarekin batera, infor-

matika gela jarri zutela San Joxepen. Datorren astetik aurrera, berriz ekingo diete ikastaroei. Hiru egongo dira: hastapen ikastaroa apirilaren 23tik ekainaren 20ra, internet ikastaroa apirilaren 24tik maiatzaren 22ra, eta Word ikastaroa apirilaren 24tik maiatzaren 17ra. Horrez gain, apirilaren 27tik ekainaren 22ra gela irekia egongo da bazkideek erabil dezaten.

## Alzheimerdunentzat oporraldiak

**Gizartekintzak** eta Gipuzkoako Alzheimer Gaixoen Senideen Elkarteak (AFAGI) oporretarako programa antolatu dute. Alzheimer gaixotasuna edo bestelako dementsia dutenei eta haien zaintzaile edo senideei zuzenduta dago. Egonaldia Errioxa edo Kantabrian egingo dira udaberri edo udazkenean. Eskaerak AFAGIren Donostiako egoitzan edota telefono honetan: 943 482 607.

## Drogak prebenitzeko gurasoendako filma

**Drogen** menpekotasunen prebentziorako udal zerbitzuak gogorazten die DBH 1 eta DBH 2ko ikasleen gurasoei, apirilaren 25ean, 18:30ean, "Oriente es oriente" filma ekainiko dutela Novedadesen.

Bergarrok epaitegian zer esanik badugulako...

# Epaitegian euskaraz! Gure eskubidea da!

Jardunen, kultura etxean, AEKn, Pol-Polen edo Arranon eskatu orria eta sina ezazu.



# Jaixetako pegatina

BERGARAKO JAIXETAKO PEGATINETAN  
**HIK ASMATUTAKO ESALDIA**  
agertzea nahi badok/n...  
Animo!, asmatu esaldia eta bota ikastetxe eta tabernetako kaxetara maiatzaren 10a baino lehen.

Esaldi aukeratuarentzat saria...

# 10.000 pezeta!





# Pentekoste jaietarako amaituta egongo da Xabier Maria Munibe plaza berria

**Xabier Maria** Munibe plazako lanak aurrera doaz. Dagoeneko lur azpiko hodi-terria guztia sartuta dago, eta harlauzak jartzen hasi dira aste honetan. Gauzak horrela, eta Udaleko iturriek jakitera eman dutenez, Pazkuetarako amaituta egongo dira lanak, aurrez ikusita zegoen bezala.

Otsailaren erdi aldera bota zuten han zegoen eraikina, duela urte batzuk Galarreta zapata-denda eta



Plaza itxura hartzen doa poliki-poliki Bidekurutzetako orubea.

Iñarre aroztegia zeuden eraikina, hain zuzen ere. Plaza berriak, zuhaitzak, eserlekuak eta argiteria izango ditu, eta aisiarako eremu izateaz gain, Ibargaraiko eremu berria eta alde zaharra lotuko ditu. Izan ere, 20. areako urbanizazio lanen barruan dago, eta hemendik urte batzuetara, Iparragirre kalearekin lotuko dute plaza berria, gaur egungo kale kantoia zabalduz.

## Ibargarai 27ko etxea bota zuten eguaztenean

**Ibargaraiko 27 zenbakia** duen etxea bota egin dute dagoeneko, joan zen eguaztenean, hain zuzen ere. 20. areako urbanizazio planen barruan zegoen, eta Ibargaraiko eremu berria eraikitzeko beste urrats bat izan da eraikina botatzea. Aurrerago, etxe horren ostean dagoena ere bota egingo dute. Gune horretan etxebizitza gehiago eraikiko dituzte, etxe multzo bat egitekotan dira eta.



## UDAKO BRIGADAK

Mexiko, Nikaragua,  
Kolonbia eta Kuba

### AURKEZPEN HITZALDIA

Eguaztena, apirilak 25, 19:30ean  
Bergarako kultura etxean.  
Hizlariak: KI-ko partaideak



**BERGARA:** 943 76 21 48

**BILBO:** martitzen eta eguakitzetan. 94 479 07 03 (20:00-22:00)

**DONOSTIA:** eguenetan. 943 34 04 04 (19:00-21:00)

**GASTEIZ:** astelehen eta eguenetan. 945 14 93 79 (20:00-23:00)

**IRUÑEA:** eguaztentean. 948 20 60 55 (20:00-22:00)

### KOMITE

### INTERNAZIONALISTAK

Izena emateko epea: apirilaren 2tik maiatzaren 18ra



# Berrigara

448 zenbakia.  
2001eko apirilaren 20a.

Irizar jauregia. Barrenkalea 33.  
20570 Bergara.  
Telefonoa: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta elektronikoa:  
berrigara@topagunea.com  
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

**Zuzendaria:** Edu Mendibil.  
**Erredakzioa:** Monika Belastegi,  
Aintzane Irizar, Edu Mendibil.  
**Maketazioa:** Iñaki Iturbe.  
**Publizitatea:** Mireia Larrañaga.  
**Harpidetzatza:** Nerea Lazpiur.  
**Testuen zuzenketak:** Sergio Azkarate,  
Gari Bragado.  
**Erredakzio kontseilua:** Eneko Azkarate,  
M. Angel Elkorobereziabar, Alex Labaien,  
Estepan Plazaola.  
**Komikiak:** Unai Azkarate, Oihan Vega,  
Usoa Mendikute, Gorka Ortega &  
Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugaldel.  
**Kolaboratzaileak:** Luis Mari Agirre,  
Juan Martin Elexpuru, Aritzazu Oregi,  
Gorka Ortega.  
**Banaketa:** Txantxangorri taldea.  
**Inprimategia:** Gertu Koop. Elk.  
(Zubillaga, Oñati).

Azaleko irudia: Berrigara

Tirada: 5.400 ale.  
Copyright: BERRIGARA.  
Lege gordailua: SS 50/91.  
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen eta  
irritzen erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntzaz:



Bergarako  
Udala



Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia



Eusko  
Jaurlaritzako  
Kultura saila

## atrebentzia ezpada

### Debagoienian tranbia ipintzekuak die. Zer pentsatzen jatzu? Erabiliko dozu? Trafiko arazua konponduko dau?



**Jabier Unamuno**

Oso ideia ona pentsatzen jat. Jartzen badabe, erabiliko dot. Gaiñera, orain dagon trafiko arazua konponduko leukela uste dot.



**Izaskun Irastorza**

Oso ondo pentsatzen jat. Izan be, Bergara oso gaizki komunikatuta dago, eta nik erabiliko neuke. Bide batez, trafikoa gutxituko litzake.



**Josu Bolinaga**

Oso ondo pentsatzen jat. Nik, behintzat, erabiliko neuke. Eta trafiko arazua konpondu ez, baiña auto batzuk kenduko litzuzke.



**Ramona Ibarbia**

Ondo pentsatzen jat. Nik erabiliko neuke, hola, jundakuan aparkau biharrik ez neuke eukiko. Komodua izango litzake.



**Jose Ramon Lozano**

Ondo pentsatzen jat, trafikua arindu egingo litzakelako. Baiña, nundik pasau? Hori da txarrena. Ni autora oso ohittuta nago.



**Ramon Solana**

Lehenagoko trena ezagutu neban, eta egitten zeban zerbitzua. Orain be, egingo dau. Bizi banaiz, behintzat, erabiliko dot.

## tira biraka peru azkarate





adituen esanetan

## Nutrizio arazoak

**G**urea, mediterraneoar dieta dela esaten dugu askotan; hemen oso ondo jaten dugula esaten dugu. Neurri batean, egia da, nahiko ondo jaten dugu. Baina dietistok ikusten ari garena da, herrialde bat zenbat eta garatuago izan, orduan eta gehiago kontsumitzen ditugula janari batzuk, eta gero eta gutxiago beste batzuk.

Duela 30-40 urtetik hona asko aldatu da Euskal Herriko jateko era. Garai hartan, eskaeratik batik bat jaten ez zituzten produktuak, kantitate handian jaten ditugu orain; eta, alderantziz, orduan asko jaten zituztenak, gutxiago jaten ditugu, pobreziarekin lotzen ditugulako-edo.

Proteinak, esaterako, gero eta gehiago kontsumitzen ditugu. Beharrezkoak ditugu, nolabait esateko, gure gorputza eraikitzen dutelako. Baina kantitate txiki batekin nahikoa dugu; jaten dugunaren % 15 baino gutxiagok izan behar dute proteinak, hain zuzen ere. Horrek esan nahi du, egunean hiru



AMAIA DIAZ DE MONASTERIOGUREN

Dietista

*«Herrialde bat zenbat eta garatuago izan, orduan eta proteina eta azukre errefinatu gehiago kontsumitzen du»*

esneki, okela edo arrain arrazio bat eta potaje plater batekin, beharrezko ditugun proteinak lortzen ditugula. Gaur egun, %23 hartzen dugu. Arraina eta okela gehiegi jaten dugu, horiek jan gabe ondo elikatzen ez garen ustea dugu. Esnekiak ere gero eta gehiago jaten ditugu. Proteina gehiegi hartzeak arazo kardiobaskularrak areagotzen ditu.

Gure gorputzak, bestalde, hidratoak behar ditu, %50; horietatik %5 bakarrik azukre errefinatuak (opil industrialak, gozokiak, freskagarriak...). Hidrato gutxiegi kontsumitzen dugu. Zerealak, pasta, ogia, eta abar gehiago jan beharko genuke. Koipeei dagokienez, ez da horrenbeste aldaketa egon kantitate aldetik, baina bai kalitateari dagokionez.

Azken urteotan, gero eta proteina gehiago eta hidrato gutxiago jaten dugu, beraz. Hori aldatu beharra dago. Nutrizionistok hezitzaile bihurtu behar dugu, eta umetatik elikadurari buruzko heziketa egokia eskaini.

kaleen izenak



Irala zinearen atzealdea 1991. urteko irudian.

## Kruz Gallastegi kalea (eta II)


**K**ruz Angel Gallastegi Unamuno bergararrak eman zion izena kaleari. Zientzialaria zen. 1891ko maiatzaren 3an Bergaran jaio eta 1960ko ekainaren 7an hil zen Pontevedrako Pazo de Gandaronen.

Gure herritik gazte joan zen, lehenengo Frantziara eta handik Alemaniara, ingeniari agronomo ikasketak egitera. Han Julio Lopez Suarez galiziarra ezagutu zuen, eta Kruz Angelengan eragin handia izan zuen. Alemaniatik Estatu Batuetara abiatu zen ikasketak sakontzera. Garai hartan hasi berria zen genetika arloan trebatu zen.

Bueltatu zenean, 1921ean, Galizian sortu berri zen ikerketa zentroko Galiziar Misio Biologikoko zuzendari izendatu zuten, bere lagun Juan Lopez Suarezren bitartez. Kruz Angelen lan-jarduna genetikako ikerketei lotuta egon zen, eta ikerketa horiek Galiziar nekazaritzan eta abeltzaintzan erabiltzen saiatu zen.

**Testua:** Arantazu Oregi, Udal artxibozaina.

**Argazkia:** BUAk utzia (Roman Larrañaga fondoak).



Zereal, pasta eta ogi gehiago jan beharko genuke.



## Organoa ikustera

Horrextara etorri zen, bai, **suitzar-aleman** lagun talde bat Bergarara. Martitzen arratsaldean izan ziren San Pedron, eta organoa jotzeko aukera ere izan zuten. Guztira, 43 lagun etorri ziren **Basileatik**, tartean, **10 organista**. Donibane Lohizunen hartu zuten ostatu; euren oporraldien helburua, Euskal Herriko organoak ikustea. Ataunen, Azkoitian, Bergaran eta Donostian ibili dira, besteak beste. Organoa ikusteaz gain, San Pedro parrokia eta Bergara bera ere bisitatu zituzten.



## Erramu Zapatuan giro ederra

Eguraldiak ere lagundu zuen, eta giro ederrean ospatu zuten Erramu Zapatua. Dena dela, ez zen urteroko jendetzarik ibili, beharbada, ganadurik ez zegoelako. Bazegoen, bai, zer ikusi: koioteak, indioilarrak, baserrirako lanabesak, baserriko produktuak... **Txorimalo lehiaketa** ere egin zuten Jardunek, urtero moduan. Hiru txapel-dun izan ziren: 14 urtetik beherakoen artean, **Irma Rodriguez**; 14 eta 65 urte bitarteko artean, **Agurtzane Elortza**, eta 65 urtetik gorakoen artean, berriz, **Mizpirualde goitza**koak.

## Edurne Azuara hasi berria

Hasi berri da **Hasiberriak** saila, eta **Edurne Azuara** bergararra da hasiberrietako bat. Jakingo duzue, casting luze baten ondoren, bost aktore hautatu zituzten, tartean, Edurne. Orain, antzetzeko ordua heldu zaio. Gauero, 22:20ean, ETB 1en ikus dezakegu.



## KONDE PANADEROKUA



Burdiñate, 1. 943 76 02 57

## ATARI

Zure auzo elkarteko arazoak konpontzeko gertu

Finka administrazioa. Kolegiatu zkoa. 574  
Ibargarai 1. Tel. 679 378 192. Faxe 943 76 38 41

## DEBA GARAIA

INMUEBLE ETA FINANNTZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar  
Telefono Aranzadi 2 behea  
943 76 21 80 / 943 76 06 37



# kontuola

**KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetaria:** Marijo Deogracias, Aintzane Irizar **Publizitatea:** Mireia Larrañaga **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Mariipi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

*Antzuolako hamabostekaria, 77. zenbakia. 2001eko apirilaren 20a.*

## Hemezortzi neska-mutiko urtebetez Gaztetxeko arduradun

### Aurtengo kintoak dira gazteen lokalaren arduradunak

**Hemezortzi dira eta hemezortzi urte dituzte, eta otsailaren bostetik Gaztetxeko ardura hartu dute. Aitortu digutez, "ez da lan handia, baina gure artean ondo konpontzeko zailtasunak izan ditugu hasieran; dena dela, hori konpondu dugu, eta hemendik aurrera Gaztetxearen dinamika berpiztea izango da gure lehentasuna".**

**E**ta horretan hasi ere egin dira. Hainbat kontzertu antolatu dituzte eta karnabaletan afaria ere egin zuten. "Orain arte Skalariak taldearen kontzertua izan da egin dugun ekitaldirik jendetsuena. Korrikaren aldeko ekitaldia izan zen, eta eurekin batera Suitzako Peacocks musika taldea ere hemen izan zen. Beste behin Arrasateko bi talde gonbidatu genituen, eta baita Katalunia-ko talde bat ere".

#### GAZTEEN ELKARLEKUA

Egubakoitzetan elkartzen da jende gehien. "Astean zehar, eskolan ari diren gazteak etortzen dira, eta egubakoitzetan adin tartea handiagoa izaten da. Hala ere, zapatuetan denbora gehiago izaten dugu zabalik". Egunero arratsaldeko 5etatik 9etara egoten da zabalik eta bina orduko txandak egiten dituzte. Asteburuetan, berriz, ixteko ordua aldakorra izaten da. "Jendearen gogoaren arabera gehiago edo gutxiago gelditzen gara, baina orduan ere bi txanda egiten ditugu".

#### GAZTETXEAREN ETORKIZUNA

Antzuolako Udalak egin nahi duen gizar-te etxea dela eta, Gaztetxearen kokapena aldatu egingo da etorkizunean. Orain



*Hiru neska eta hamabost mutikok dute Gaztetxeko ardura.*

dik ez dira lanak hasi, eta ez dakite noiz hasiko dituzten, hala ere, "herriko jaiak baino lehen ez dutela itxiko esan digute, eta ziur asko hemen egongo gara jaietan ere". Gero, Gaztetxe berria zelakoa nahi duten galdetzean zera diote: "etxeetatik urrunxeago egotea komeniko litzateke, hartara musikarekin arazorik ez genuke izango, baina herriko plazatik behera egon beharko litzateke, hortxe ibiltzen dira eta antzuolarrak; taberna ere izan beharko luke, izan ere, diru-iturri bezala ondo etortzen da; lokalaren tamainari dagokionez, oraingoa bezala izatearekin nahiko".

#### ETA BITARTEAN ZER?

"Gaztetxea hartu genuenean hainbat gauza konpontzeko zeuden: komunetako bat ez dabil, eta leihoetako bat ere kon-

pondu beharra izan dugu. Horretaz gain, bilarra ere apurtuta dago, eta argi gutxi daukagu". Baina dena ez da kexua. "Hainbat txapelketa antolatu nahi ditugu. Batetik futbolin txapelketa egiteko-tan gabilta eta bestetik, eta aprobetxatuz zale asko dagoela aspaldian, dardo txapelketa. Billarra ere jarriko genuke, baina 50.000 pezeta baino gehiago kostatzen da, beraz, oraingoz behintzat beste biekin geratuko gara".

Gaztetxeko arduradunak hauexek dira: Josu Agirre, Mikel Bargiela, Larraitz Berraondo, Xabi Biteri, Jessica Escobar, Mikel Fortuna, Gorka Iglesias, Ugaitz Iturbe, Jon Kortabarria, Erik Lizarralde, David Martin, Asier Odriozola, Idurre Orobengoa, Jon Pagaldai, Sergio Sanchez, Iban Unanue, Gotzon Zabalo eta Josu Zubikarai.



# Debarroko pilota txapelketaren finala An tzuolan jokatu da

**Apirilaren 29an**, domekan, Antzuolan jokatu da Debarroko pilota txapelketako finala. Aurreko Kontuolan esan genizuen pilotalekua itxita egongo zela margotu egin behar zutela eta. Jadanik txukundu dute eta guztia prest dago Debarroko eskuz binakako pilota txapelketaren finalak jokatzeko.

Hiru final jokatu dira, baina ez da antzuolarrik egongo baten ere. Izan ere, bi bikoteak, kadeteak eta nagusiak, kale-ratu egin dituzte ligaskan zehar: Olalde-Mintxegi-Idiakez hirukotea kadete mailan eta Agirre-Biteri bikotea nagusietan.

Debagoiena eta Debarrena bailaretako pilotariak aritu dira azkenengo hilabeteetan ligaska jokatzeko eta, azkenean, iritsi da egun handia. Kadetetan Arrasateko Uribarren eta Agirrek jardungo dute Soralezeko bikotearen aurka. Gazte mailan, berriz, Soraluze da momentuz sailkatu dena, izan ere, martitzenean jokatu behar zuten Eibar eta Eskoriatzaren arteko kanporaketa.

## PARTIDA BIKAINA

Nagusietan partida interesgarria ikusteko aukera izango da. Aretxabaletakoak

eta Bergarakoak arituko dira nor baino nor. Aretxabaletatik Errasti anaiak etorriko dira. Bi hauek denboraldi bikaina egin zuten iaz eta aurten ere ez dira makal ari. Puntuka berdinduta zeuden mondragoetarrekin, baina azkenean eurak iritsi ziren finalera. Aurrez aurre, Bergarako Muguruza eta Gutierrez izango dituzte. Juan Mari Errastik -Errasti anaien aitak- adierazi digunez ondo jokatu gero, irabazteko moduko partida izango da.

Pilota jaialdia goizeko 10:30ean hasiko da Herriko pilotalekuan.

## Gazte mailako futbol taldea igoera aldiko txapelketan

**Bigarren urteko** gazte mailako futbol taldea bikain ari da aspaldian. Igoera aldiko partidak jokatzeko ari da datorren denboraldian maila bat gorago aritzeko asmoz. "Eta lortuko dugu, gainera!". Ziur daude AKEko gazteak. Oraindik bost norgehiagoka gelditzen zaizkio taldeari, eta asteburu honetan etxean arituko dira mondragoetarren aurka. Zaharrenek kanpoan jokatu dutela eta, Estalan arituko dira zapatuan David Lopez de Abetxuko "Txuko"ren mutilak.



Denboraldi hasierako argazkia.

## ANTZUOLA

Apainketak eta  
isolamenduak  
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA  
Tf.: 943 72 30 05  
Billegia: 943 78 70 40

## EGAÑA

Era guztietako arotz lanak


Tarima eta parketa jartzea  
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tf.: 943 76 64 23

## GOROSTI Taberna

☎ 943 76 62 96  
Zurrategi plaza ANTZUOLA





1998ko txapelketako irudia.

# Eskuz binakako pala txapelketa abian da

Joan zen hilaren bukaeran hasi zen aurtengo bikotekako pala txapelketa eta hurrengo partidak zapatuan jokatuko dira, apirilaren 21ean. Goizeko 09:00etan hasiko dira partidak eta eguerdia bitartean bost partida jokatuko dira. Aurten

hamaika bikote ari dira lehia bi mailatan banatuta. Maila bakoitzeko lau lehenak sailkatuko dira maiatzaren 12an jokatuko diren finalerdietarako. Finalak, berriz, maiatzaren 26an jokatuko dira.

## Bikoteak

### 1. MAILAN

A. Arbulu - B. Zabalo  
I. Toledo - A. Peñalva  
J. Irizar - A. Iraola  
J.T. Garitano - I. Arana  
I. Manso - R. Iturbe  
G. Iparragirre - T. Jauregi

### 2. MAILAN

A. Biteri - J.G. Biteri  
J. Garitano - L. Larrea  
J.M. Aranburu - X. Sansebastian  
J. Larrea - J.S. Aristi  
A. Rodriguez - A. Azkarate

## BALKOI ETA LEIHOETAKO LORE LEHIAKETA

Seigarren urtez Antzuolako Udalak "Balkoi eta leihoetako lore-apainketa lehiaketa" antolatu du. Herriko jaietarako etxeak dotore eta koloretsu egon daitezen eta, bide batez, herrian lorak ipintzeko dagoen ohitura aprobetxatuz, ekainaren 23an lore ederrenak dituztenak sarituko dituzte. Bi sari banatuko dira: 15.000na pezetakoak biak. Batetik, alde zaharreko balkoia eta leihorik ederrena sarituko da eta, bestetik, auzo eta etxe berriagoetako balkoia edo leihorik ederrena. Saria ematerako orduan barietatea, konposizioa eta etxearen kokapena izango dira kontuan. Beraz, badakizue. Udaberriari gaudela eta, lora ederrak zaindu eta ingurua apaintzearekin batera sari bat irabazteko aukera izango duzue.

## KUKUMARRO LEHIAKETA SAN ISIDRO EGUNEAN

Maiatzaren 19an San Isidro eguna ospatuko da, baserriarren eguna eta urtero legez, kukumarro lehiaketa egingo da egun horretan. Antzuolako Udalak antolatu du lehiaketa hori eta hiru mailatan parte hartu ahal izango da: 12 urtetik beherakoak, 12 urtetik gorakoak, eta erretiratuak. Horren arabera, sariak ere hiru izango dira: parte hartzen duten txiki guztiek sorpresa bat irabaziko dute eta 12 urtetik gorakoek eta erretiratuek, berriz, 15.000na pezeta. Izena emateko udaletxera edo liburutegira jo dezakezue eta epea maiatzaren 10ean amaituko da. Lehiaketara aurkezten diren txorimalo guztiekin erakusketa egingo da San Isidro egunean goizeko 11etatik aurrera.

## Igor eta Txomin



Margoak orokorrean

ANTZUOLA  
609 157 131

BERGARA  
609 150 164



Zabalo Iturgintza S.L.

Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea 10. Tf. 943 78 71 78

Erakusketa: Kalebarren 1. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haize egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak

- Bero-aurreztea
- Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBaren bidez
- Birgaitze-espedituek bideratzen ditugu



Aitor Larrea, Antxitxika triatloi taldeko kidea

# «Megafonixatik esan zozkuen Espainiako txapelketara juteko erreserban gendela»

Tres Cantosen, Madrilen, Espainiako duatloi txapelketa jokatu zuten orain dela bi aste. Hantxe izan zen 24 urteko gazte hau. 10 kilometro korrika, 40 kilometro bizikletan eta beste bost korrika egin zituen, 200 lagunekin batera. Zenbat denboran egin zuen ez dakiela dio, baina 60.a izan ei zen. Zapatuan, berriz, Gasteizko txapelketara joango da.



Zapatuan Gasteizko duatloira joango da.

## Zela sailkatu zinen Espainiako txapelketarako?

Euskal Herriko selekziñuakin jun nitzan. Aurretik bi probetan ibilli nitzan: lehenengua Basaurin eta bigarrena Oñatin. Han bukatu giñuanian megafonixatik esan zeben nere taldeko mondragoetar bat eta neu Espainiako txapelketara juteko erreserban gendela. Ustekabian harrapatu ginttuan kontuak. Gaiñera erreserbarako esan zeben ze, Basaurin 14. gelditu nitzan eta Oñatin sei garren (Oñatin neure espezialidadia izan zan: bizikletan korrika baino distantzia luziagua). Azkenian jutia tokau jakun eta gustura.

## Ze mailatan aritu zara?

Seniorretan ibilli naiz. Duatloietan hiru maila dare: esprina, erdi duatloia eta luzia. Txapelketia luziena zan eta airtortu bihar dot neu hobeto ibiltzen naizela horretan ze korrika baiño distantzia luziagua izaten da bizikletan eta neu bizikletan hobeto ibiltzen naiz.

## Gainera zeu txirrundularia izan zara.

Horregatik nabil hobeto bizikletan, baiña iaz Julen Garitano eta Karlos Ba-

lezenak esan zozten Bergaran bazebiltzela beste lagun batzuekin triatloi talde bat egin nahixan eta neuk be hastia erabaki neban. Anaia, Iker, be nerekin batera hasi zan. Trajiak Igartuanekuek emoten doskue eta bestelako laguntzaik eztauku: karrerretarako gastuak gure kon-

tura egitten dittugu.

## Gusturago aritzen zara kirol mota horretan?

Lehen bakarrik kirol baten ibiltzen nitzan, eta oin bizikletan, korrika eta igerixan egitten dot. Gaiñera lagunekin ibiltzen naiz eta dibertigarrixagua da. Oin "todoterreno" naizela esan leike.

## Astian zenbat entrenatzen duzue?

Egunero egitten dogu zeozer. Pare bat orduz egunero ibiltzen gara. Ariketan Arrasateko kiroldegiko mediku taldiak ipintzen dozku.

## Noiz izango da hurrengo txapelketa?

Zapatuan Gasteizera goiatz. Duatloi txapelketa dago eta neure gustua danez, hobeto ibiltzia espero dot. Korrika asko galtzen dot, nahiko flojo ibiltzen naiz korrika.

## Iron man probak dira triatloi munduan ezagunenak. Animatuko zara?

Udan Dinamarkara juteko asmotan gare. Momentuz Julenek eta bixok asmo hori daukogu eta anaia be animauko dala uste dot. Oindio asmua da bakarrik, baiña hori izaten da lehenengo pausua, ezta?



Udan Dinamarkara juteko asmotan gare,  
Iron Man txapelketara



KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

*Tomas Gezalaga*

ANTZUOLA BERGARA

- Zoruen kutxilatua eta barnizaketa •

GAILUR

taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA  
Tf. 943 78 70 32

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

*Tomas Gezalaga*

ANTZUOLA BERGARA

- Apainketarako eta industriadarako pinturak •
- Paper margotzak •
- Mokatetako eta tapizatuak •



**Karmentxuk 44 urte dauzka eta duela 18 urtetik dihardu Eroski Bidaiak ajentzian lanian. Administrazio ikasketak egin zituen. Bergarakua da, ezkondua dago eta seme bat dauka. Asko gustatzen jake bere lana, eta ez ei luke aldatuko.**

## Karmentxu Larrañaga

### Aste Santuan nun egon zara?

Hemen; lan egittia tokau jat. Jai eduki doten egunetan hemen inguruan ibilli naiz.

### Eta jendia nora juaten da gehixenbat

#### Aste Santuan?

Saloura eta Benidormera, esaterako. Aurten izugarria izan da Benidormek izan duen eskaera.

### Nahikua diru eduki ezkeru, ze bidaia egingo ziñuke?

Australiara juango nintzake. Sekulako gogua daukat Australia ezagutzeko.

### Aukeran, hondartza ala mendixa?

Hondartza.

### Trena, autobusa ala hegazkiña?

Hegazkiña; alde batetik, oso erosua dalako, eta bestetik, garraiobidien artian seguruena ere badalako.

### Zure lanian, zer da gehixen gustatzen jatzuna?

Jendiarekin harremanetan egotia. Dana dala, danerako jendia dago eta egun txarrak be edukitzen ditzuzu, baina asko gustatzen jat.

### Eta gutxien?

Trenerako txartelak saltzia.

### Aldatzekotan, zertan lan egin nahiko ziñuke?

Oso gustora nago lan honekin. Ez dot sekula planteatu, ez dot uste aldatuko nukenik.

### Bizitzeko toki bat?

Bergaran oso gustora bizi naiz.

### Bergarako tokirik polittena?

Neu bizi naizen aldia oso politta da, Arrizuri inguru.

### Asteburu baterako plan ideala?

Balnearixo batera juatia.

### Zure bertute bat?

Hori ezin dau norberak esan; hori bestiei galdetu bihar jakue.

### Eta defektu bat?

Jenixo txarra daukatela.

### Bestiengan, zer da gehixen apreziatzen dozuna?

Zintzotasuna, hori da inportantiena.

### Denpora librian zer egittia gustatzen jatzu?

Irakurtzia, musikia entzutia...

### Musika talderen bat?

Euskaldunen artian, Benito Lertxundi; bestela, musika klasikua gustatzen jat.

### Liburu bat?

*El principito.*

### Film bat?

*Titanic.*

### Telebista, irratixa ala egunkarixa?

Irratixa asko gustatzen jat, konpainia egitten dost-eta.


### Amet bat?

Bidaia luze eta politt bat egittia, kruzero bat, esaterako.



## POL-POL Taberna

943 76 07 78



## ANDVZY

ANDUZU S.L.  
Simon Arrieta, 1, 4-C  
607 349 043



## Garabi zerbitzua


Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

## Ganbara

TABERNA

Heure erara  
ibiltzeko!

Irala z/g. Tf. 943 76 55 75



## Ur-bide

ITURGINTZA

Zubieta, 28-behea  
BERGARA  
943 76 00 57  
630 261 617

Irala 3  
Telefona:

943 76 48 26

IRRINTZI  
kafetegia







Erdian, plataformaren anagrama. Pegatina moduan ere banatu dute plataformakoek.

# Justizia euskaraz eskatzen

lazko udazkenetik dihardu lanean plataformak

**Epaitegira joan eta harreman guztiak euskaraz izatea ezinezkoa da gaur egun.**

**Arlo askotan dauzka euskarak arazoak, baita justizia administrazioan ere. Horregatik sortu zuten herriko hiru taldek justizia administrazioa euskalduntzeko plataforma.**

**I**azko udazkenean sortu zuten plataforma hori AEK, Euskal Herrian Euskaraz eta Jardunek. Euskal Herriko epaitegietan, eta baita Bergarakoan ere, euskarak bizi duen egoera kezkarria da, eta kezka horrek bultzatu zituen taldeok plataforma sortzera. Euskaldunon eskubideak bermatu ditzatela, besterik ez; horixe da, bi hitzetan esateko, talde honek lortu nahi duena.

## ZAZPI OINARRI

Euskaldunon eskubideen aldeko lanak batu ditu, esan bezala, hiru taldeok. Eta honako zazpi puntu hauek dituzte oinarri: bat, euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza eta ofiziala da; bi, justizia administrazioa Euskal Herrian kokaturik dago eta herritarren eskubideak bermatuko dituen zerbitzu publikoa da; hiru, justizia administrazioak herritarrok hautaturiko prozedura hizkuntza

bermatu behar du, eginpide guztiak hizkuntza horretan egitea bermatu behar du; lau, itzulpena salbuespena da, itzulpen sistema modu sistematikoan erabiltzea herritarren berdintasun printzipioaren aurka doan aukera da; bost, eginbehar publikoetan aritzeko, euskara derrigorrezkoa izatea; sei, behin-behineko eta premiazko irtenbideak bermatzea, lehenbailehen epaitegi desberdinen zein erregistro-liburuen eus-

**Sukaldeko altzarien eta horma-armairuen fabrika**

*Super*  
**Armeko**

- Lantegiko prezioak
- Erakusleku handia: 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Nobedade denak

**Kataide poligonoa, 6. pabilioia.  
ARRASATE. 943 71 25 08**

**ANTIA**

**HARATEGIA URDAITEGIA**

*Txahal, idi, txerri, bildots,  
untxi eta baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09



kalduntzean; zazpi, herritarrek justizia administrazioarekin dituzten hizkuntza eskubideak jakitera ematea.

**ATXIKIMENDU UGARI**

Iazko azaroan aurkezpen ofiziala egin zutenetik, atxikimendu ugari jaso dituzte; besteak beste, honako hauek azaldu diete euren atxikimendua: herriko hainbat ikastetxe eta sindikatuk, Gazteak, euskaltegiek, Ikasle Abertzaleek, Bergara Kirol Elkarteak, Abokatu euskaldunen elkarteak, Amnistiaren aldeko batzordeak, eta baita Bergarako Udalak ere. Hauek guztiak, beraz, aurrez aipatutako oinarri guztiarekin bat egin eta epaitegiarekiko harremanak euskaraz izateko konpromisoa hartu zuten atxikimendu horrekin batera. Bergarako Udalak ere, osoko bilkuran hartu zuen epaitegiarekin harreman guztiak euskaraz izateko konpromisoa.

Bestalde, herritarren parte hartzea ere lortu dute. Dagoeneko 500 bat sinadura batu dituzte. Egia esan, sinadurak baino, eskaera orriak dira; hau da, epaitegiari harremanak euskaraz izan nahi dituela eskatzen du jendeak orrialde horien bitartez. Pazkoak arte, behintzat, kanpaina horrekin jarraituko du plataformak.



Iazko azaroan egin zuten plataformaren aurkezpen ofiziala.

ARTXIBOA

tzen diguten bide bakarra itzulpen sistema da. Plataformakoen ustez, berdintasun printzipioaren aurka doa sistema hori.

Baina, euskaldunok ezagutzen al ditugu dauzkagun eskubideak? Plataformako kideen esanetan, ez; horregatik, legeek diotenari buruzko informazio kanpaina bat prestatzen dihardute.

Euren helburua, euskaldun guztiok eskubide eskatzaile aktibo bihurtzea da batetik, eta bestetik, justizia administrazioa presionatzea, euskararen normalizazio prozesuan parte har dezan. Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian egoera askoz okerragoa da, izan ere, Nafarroako zati handi batean eta Ipar Euskal Herrian euskara ez da ofiziala.<

**EUSKALDUNON ESKUBIDEAK**

Euskal Autonomia Erkidegoan ofiziala da euskara, gaztelaniarekin batera. Horrek esan nahi du baditugula hainbat eskubide, euskal hiztunak garen aldetik. Epaitegietan euskaldunoi eskain-

**Atxikimendua azaldu dutenek, epaitegiarekin harremanak euskaraz izateko konpromisoa hartu dute**

**Nutrizioari buruzko ikastaroa**

**Maiatzaren 2tik ekainaren 7ra**

Bi ordutegi aukeran:

1. Astelehen eta eguenetan  
19:00etatik 21:00etara
2. Eguazten eta egubakoitzetan  
15:00etatik 17:00etara

**Izena emateko azken eguna apirilaren 26a**

Jarduneko bazkideek **4.500 Pta**

Gainerakoek **5.500 Pta**

**Informazioa: 943 76 36 61**



- GAIAK:**  
 Proteinak  
 Koipeak  
 Hidratoak  
 Janari taldeak  
 Sukaldeko higiena  
 Mediterraneoko dieta  
 Esnekiak, arrautzak  
 Kontserbak  
 Menuak





## Maiatzetik aurrera adin mugarik gabeko futbol txapelketa Ipintzan

### Beteranoen eta nesken txapelketak ere jokatuko dituzte

Lagunak kirol elkarteak antolatuta, adin mugarik gabeko futbol txapelketa jokatuko dute Ipintzan maiatzetik aurrera. Era berean, beteranoei (30 urtetik gorakoei) eta neskei zuzendutako futbol-zazpiko txapelketak izango dira.

Adin mugarik gabeko futbol txapelketan, gehienez, 20 talde izango dira lehian (joan zen urtean 22 taldek hartu zuten parte), eta bertan parte hartu ahal izateko maiatzaren 1aren aurretik 16 urte beteta izatea eskatuko diete jokalariei. Txapelketa maiatzeko azken aurreko zapatuan hasiko dute, eta ekainean aste barruan jokatuko dituzte partiduak, 19:15ean eta 20:30ean. Buelta bakarreko liga sistema jarraituko dute eta partiduen iraupena 60 minutukoa izango da. Talde bakoitzak, gehienez, federatutako lau jokalarri inskribatu ahal izango ditu, baina, jokatzeko orduan, federatutako hiru jokalarri bakarrik egon ahal izango dira zelaiaren. Talde bakoitzak 14-21 jokalarri bitarteko zerrenda aurkeztu beharko du igeri-



Argazkian, joan zen urteko txapelketako senior mailako nesken txapelketako talde finalistak.

lekuetako tabernan maiatzaren 11 baino lehen. Maiatzaren 14an, Agorrosinen, taldeetako ordezkarien bilera egingo dute, 19:30ean. Bileran, jokalarri bakoitzeko 1.000 pezetako ordainketa egin beharko dute.

#### NESKAK ETA BETERANOAK

Joan zen urteko esperientziari utsiz, neskei eta beteranoei zuzendutako futbol-zazpiko txapelketak ere

izango dira. Nesken txapelketan infantil (1989 eta 90ean jaiotakoak), kadete (86-88 bitartean jaiotakoak) eta senior (85eko abenduaren 31 baino lehen jaiotakoak) mailak bereiztuko dituzte. Kategoria bakoitzean ez dituzte sei talde baino gehiago onartuko.

Nagusien txapelketan 30 urtetik gorako jokalariek hartuko dute parte, eta gehienez 10 talde onartuko

dituzte. Nagusien zein nesken txapelketan, talde bakoitzak 10-13 jokalarri bitartean izan beharko ditu, eta izena emateko epea maiatzaren 22ra arte izango da zabalik. Maiatzaren 25ean ordezkarien bilera izango da Agorrosinen, 19:00etan nesken txapelketakoa eta 20:30ean nagusien. Nesken txapelketa ekainaren 1ean hasiko da eta nagusien ekainaren 7an.

## ARREGI

Eraikuntza materialak

Biltegia Tellerian, Labegaraian.  
Tf. 943 76 27 93



**BANKINTER**

**%4,95** etik aurrera lehen 3 urteetan

Euribor-a + **%0,50** garbia, ondoren\*

\*Irekiera komisioa: %0,25.  
35 urte bitartearaino

**iRUDI**

Erloju denda  
Bitxitegia

Ibargarai, 2  
943 76 51 65



**MARKEL LARRAÑAGA / Bergarako Shotokan karate taldekoa**

## «Espainiako txapelketan egotea saria da niretzat, ez nuen espero»

**Markel Larrañaga 14 urteko gaztetxoak, astebukaeran Leganesen jokatu duen Espainiako karate txapelketan parte hartu du, infantil mailan, 60 kilotik beherakoen kategorian.**

**G.** Espainiako txapelketarako sailkatzea espero zenuen?

**E.** Egia esan, ez. Josean Iñarra nire entrenatzaileak hurrengo urtean aukerak izango nituela esaten zidan eta, beraz, sorpresa atsegina izan da aurten sailkatzea. Joan zen apirilaren 1ean, Gasteizen jokatu duen txapelketa batean, Euskadiko hautatzaileak ikusi ninduen eta deitzea erabaki zuen. Txapelketan egotea sari bat da niretzat.

**G.** Aurten ondo ari zara.

**E.** Bai, Gipuzkoako txapelketan, kumitetan (borroketan) lehenengo, eta kateetan bigarren sailkatu nintzen. Eta Euskadikoan kateetan 3. geratu nintzen.

**G.** Noiz hasi zinen karatean?

**E.** Bost urte nituela. 13 urterekin gerriko beltza atera nuen. Bergarako Shotokan taldean ari naiz eta gustura nabil, asko gustatzen zait.

**G.** Zer berezitasun dauka shotokan modalitateak?

**E.** Karate modalitate ezberdinak daude, bakoitzak mugimendu jakin batzuekin, besterik ez.

**G.** Zer behar da karatean aritze-ko?

**E.** Indarra eta

abiadura batez ere. Teknikak ere garrantzia dauka. Eta borroka egiterakoan aurretik ondo pentsatu beharra dago zer egin behar duzun, puntuak lortu ahal izateko.

**G.** Espainiako txapelketarako entrenamendu berezirik egin duzu?

**E.** Astean laupabost orduz entrenatzen nabil. Ea txapelketa txukuna egiten dudana.



### karteldegia

#### FUTBOLA

##### Bergara-Durango

Hirugarren maila  
Zapatua. 17:00. Agorrosin

##### Bergara-Antzuola

Bigarren mailako kadeteak  
Zapatua. 18:45. Ipintza

#### ESKUBALOIA

##### Bergara-Tolosa

Kadete mutilak  
Zapatua. 16:15. Kiroldegia

##### Bergara-Pulpo

Gazte mutilak  
Zapatua. 17:30. Kiroldegia

## Igeriketa ikastaroak Agorrosinen

Udal kirol zerbitzuak antolatuta, maiatzetik aurrera, 3 eta 4 urteko umeentzat, 5 urtetik 12 urtera bitartekoentzat eta 13 urtetik gorakoentzat igeriketa ikastaroak egongo dira. Argibideak, 943 77 91 67 zerbakian.

## Kadete eskubaloi taldea txapeldun

**BKEko mutilen kadete eskubaloi taldeak** Federazio Txapelketa irabazi du, joan zen apirilaren 8an, Labegaraian jokatu duen partiduan, Leizaran taldeari 15-13ko emaitzarekin nagusitu ondoren. Bergararrek txapelketa borobila burutu dute, partidu bakarra galduz,

Urolaren aurkakoa, hain zuzen ere. Edu Eguren, Aitor Ibarra eta Edu Iñarrak entrenatzen duten taldeak kopa txapelketari ekingo dio orain. Bergararrak faboritoen artean izan daitezke. Aurretik, zapatuan, Tolosaren aurka jokatu duen kiroldegian, 16:15ean.



Argazkian, mutilen kadete eskubaloi taldea.

ile apaindegia

eder gela

— disdira —

Masterreka, 7 • Tf. 943 76 00 55

**IRURAK PINTURAK S.L.**

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK  
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA  
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA  
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984  
FAXA: 943 76 09 32

**GURIDI** altzariak

Era guztietako altzariak

Artekalea 8 Tf. 943 76 31 02





# Labegaraietako futbito txapelketa

## EMAITZAK

### A MULTZOA

Eri-Buya	5-1
Apa Oxemai-Torrekua	3-0
Errotagain-Pagomendi	6-3
Bildurbarek-Fac	4-7
Amoskibar-Torrekua	6-2
Eri-Bar Ugarte	3-4
Errotagain-Irubide	10-0
Bar Canalejas-Bildurbarek	4-8

### B MULTZOA

Amilox-Vacalouras	1-1
Ortzi-Aterpe	4-2
Agirrebeña-Etengabe	5-4
Etengabe-Pinturas Bergara	5-7
Kanpazar Harrobia-Aterpe	8-3

### C MULTZOA

Shaktale-K. Piperrak	1-3
Txipiron-Artusamak	0-3

## PARTIDUAK

### ZAPATUAN, BARRUAN

12:30: Fac-Buya	Antolaketa
-----------------	------------

### ZAPATUAN, KANPOAN

16:00: Amilox-Kanpazar Harrobia	Irubide
17:00: Irubide-Eri	Apa Oxemai
18:00: Amoskibar-Apa Oxemai	Alum. Kres.
19:00: Aterpe-Aluminios Kresala	Cine Bank
19:00: Cine Bank Irimo-Etengabe	Aterpe

### DOMEKAN, BARRUAN

9:30: Mongatxurak-Artusamak	Ortzi
10:30: Alum. Kresala-Ortzi	Bar Ugarte
11:30: Errotagain-Bar Ugarte	Canalejas
12:30: Canalejas-Pagomendi	Errotagain
16:00: Bayer-Vacalouras	Torrekua
17:00: Torrekua-Irubide	Bayer

### DOMEKAN, KANPOAN

10:30: Guadalest-Patxaran Team	Agirrebeña
11:30: Pinturas Bergara-Agirrebeña	Kanpazar
12:30: Kanpazar Harrobia-Ortzi	P. Bergara

## ARGI!

### Torrekua eta Txipiron zigortuta

Torrekua eta Txipiron taldeei, partidua galdutzat emateaz gain, hiru puntu kendu dizkiete euren partiduetara ez aurkezte-agatik. Hurrengoan txapelketa-tik kanporatuko dituztela adierazi dute antolatzaleek.

### Kopa txapelketa hastear

Joan zen asteko martitzenean, kopa txapelketako zozketa egin zuten kultura etxean. Datorren asteburuan, liga amaitzeaz bat, kopa txapelketari hasiera emango diote.

### Ortzi eta Kanpazar Harrobia

B multzoan Ortzik lidergoa eskuratu du Aterperi irabazi ostean (4-2). Kanpazarrek ere uste baina errazago irabaziz Aterperi (8-3).



**GORA eta BEHERA**



### Bar Canalejas eta Irubide jabetxea

Bar Canalejasek behera egin du azkenaldian: multzoko sailkapenean bosgarrena da. Irubidek, bestalde, 10-0 galdutuz Errotagainen aurka.

## SAILKAPENA

### A multzoa

	P	J
1. Bar Ugarte	55	21
2. Errotagain	52	21
3. Bildurbarek Opel Lam	46	22
4. Amoskibar	36	20
5. Bar Canalejas	34	21
6. Pagomendi	33	21
7. Fac	27	21
8. Eri	22	20
9. Irubide jabetxea	18	20
10. Buya	11	20
11. Torrekua	10	20
12. Apa Oxemai	4	21

### B multzoa

	P	J
1. Ortzi	39	17
2. Aterpe	38	19
3. Kanpazar Harrobia	35	18
4. Amilox	33	19
5. Aluminios Kresala	32	17
6. Bayer	29	18
7. Pinturas Bergara	23	18
8. Vacalouras	17	18
9. Agirrebeña jabetxea	12	18
10. Cine Bank Irimo	9	18
11. Etengabe	4	18
-	-	-

### C multzoa

	P	J
1. A Ze Flaxa	36	16
2. Artusamak	34	15
3. Mongatxurak	33	14
4. Guadalest	27	15
5. Komando Piperrak	25	16
6. Shaktale	17	15
7. Txipiron	16	16
8. Patxaran Team	5	15
-	-	-
-	-	-
-	-	-

Informazio hau, ondorengo babesleei esker:

## ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK, EGUNEROKO MENUA, GOSARIAK, BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 943 76 53 12



## OGIZUN

koop. elk. okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g  
BERGARA OÑATI  
943 76 20 49 943 78 24 13

## Otsein Saria

Soduperen aurkako partiduan honako hauek nabarmendu ditugu:

Asier Rodriguez.....3 puntu  
Etor Laskurain.....2 puntu  
Gorka San Vicente.....1 puntu

Etzeko partidua bakarrik hartzen ditugu kontuan.



# B e r g a r a k o OSASUN GIDA

■ **ALBAITARIAK:** **ARATZ KLINIKA (LAZPIUR Roman).** Zurradero 6, behe. 943 76 70 67, mobila: 607 48 71 19 • **ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak).**

943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13 • **ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albaitari ofiziala).** 943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13 • **IRASTORZA BENGEOA Sabin**

**(Granjako animaliak).** Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46 ■ **ANALISI KLINIKOAK:** **LABORRA Isabel.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

■ **BARNE MEDIKUNTZA:** **IRIGOYEN Victor.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **DENTISTAK:** **AGIRRE HORTZ KLINIKA.** Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23 • **ARAMBURU**

**HORTZ KLINIKA.** Telesforo Aranzadi 1, behe. 943 76 02 46 • **ASTIAZARAN SOLOZABAL.** Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95 • **BERGARA HORTZ KLINIKA.**

Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77 • **GOROSABEL J. Alberto.** Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88 • **GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO**

**ZENTRUA, E. M. S. Arrieta 3, 2-B.** 943 76 38 54 • **IRIARTE Idoia.** Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65 • **LASKURAIN HORTZ KLINIKA.** Boni Laskurain 4, behe. 943 76 56 57 •

**TRIPALDI Enrike.** Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76 ■ **ERREHABILITAZIO FISIKOA:** **LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74

■ **FISIOTERAPEUTAK:** **ARZAK Miren (Reeducacion Postural Global).** Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 • **BASTERRETxea, Maria.** Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

■ **HOMEOPATA:** **SUSANA GANUZA.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **GINEKOLOGOA:** **SERRANO DOKTOREA.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

■ **MASAILARIAK:** **AGIRREZABAL Jose Jabier.** Boni Laskurain 1, 2-A. 943 76 21 62 • **AZPEITIA Irupe.** Agorrosingo igerilekuak. 943 76 73 43 • **CASANELLAS Jabier.**

Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78 • **ETXEBERRIA Ana.** Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13 ■ **MEDIKUNTZA ESTETIKOA:** **BENITO Isabel.** Bidekurutzeta

46, behe. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA OROKORRA:** **OXIRONDO KONTSULTATEGIA.** Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50 ■ **PODOLOGOAK:** **ALTUBE Edurne.**

Simon Arrieta 2. 943 76 07 84 • **AZPIAZU Arantzazu.** Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

■ **PSIKIATRA:** **GALLASTEGI Pablo.** San Martin Plaza 2, 1-ekz. 943 76 26 64 ■ **PSIKOLOGOAK:**

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea).** 943 76 14 80

• **URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa).** 943 76 53 13 • **ZUBILLAGA ZABALA Marisa (Psikologo**

klinikoa), 943 76 30 76 ■ **SEXOLOGOAK:** **ANA OIARZUN** Errebal 12, 2 esk., EIBAR. 943 70 24 46

*Osasunez bizi izateko!*





**bonofotoa**

Zein da Masterreka kalean dagoen elkarte honen izena?  
Eta zein urtetan inauguratu zuten: 1974, 1976 ala 1978an?

**galde debalde**

1. Zein erakundek osatzen dute justizia administrazioa-euskalduntzeko plataforma?

- A- AEK, EHE eta Jardunek
- B- Jardun eta AEK-k
- C- EHE, AEK eta udalak

2. Zein taldeetan ari da Markel Larrañaga karateka bergararra?

- A- Ariznoan
- B- Shotokanen
- C- Beti Bustin

3. Zein lehiaketetan izan da garaile Ainhoa Agirreazaldegi bertsolaria?

- A- Osinalde eta Orixen
- B- Gabiria eta Orixen
- C- Osinalde eta Ormaiztegin



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

Aurreko aleko saria **Aitor Zengotitabengo**arentzat izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Aitorri! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:  
Bonofotoa: **Aligustrea (arbustu arrunta)**  
Galde Debalde: **1-A, 2-B, 3-A**

**BONOFOTOA**

**GALDE DEBALDE** 1: \_\_\_\_\_ 2: \_\_\_\_\_ 3: \_\_\_\_\_

Izen-deiturak: \_\_\_\_\_ Telefonoa: \_\_\_\_\_

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

**Koipesol**  
ekilore olio, litroa  
**129 PTA!**

**Super BMn beti eskaintzarik onenak!**



## Cool Panic taldeak Safety Pins disketxearekin graba lezake

**Rock taldeak datorren ikasturtean sina lezake kontratua. Bestalde, Fly Shit hardcore-punk taldeak izen bereko diskoa kaleratu berri du.**

Bost gaztek osatzen dute Cool Panic: Alex Muela (gitarra eta ahotsa), Itziar Iturbe (ahotsa), Aitor Pedregon (gitarra) eta Iker Narvaez (bateria). Maketa grabatu zutenean, baina, Ruben Gauna zen bateria.

Maketa kaleratu bezain laster, lehenengo disketxearen eskaintza jaso zuten, martxoan, Galiziako Runa Recordsena. Hala ere, kontratuko baldintzak gustuko ez, eta aurrera ez egitea erabaki zuten.

Bigarren eskaintza jaso berri dute Madrilgo Safety Pins disketxetik. Itziar Itur-



Cool Panic taldeko kideak.

ERAITZ LOITI

be kideetako baten arabera, «maketa gustatu egin zitzaien, baina kontraturik ez digute oraindik egin. Dena dela, eskainitakoa gustatzen bazaigu, aurrera egiteko prest gaude». Diskoa grabatzekotan, uda osterarte itxaron beharko dute.

### FLY SHIT

Igor Setien, Ander Elortza, Unai Azkarate, Jon Ostolaza eta Heloy Galanek osatzen dute taldea. Izen bereko diskoa kaleratu dute Hotsak zigilupean. Hamabi kantuz osatuta dago eta egunotan jarri dute salgai tabernetan.

## Agirreazaldegia bertsolaria garaile bi lehiaketan

**Bergarako** bertsolaria garaile izan da bi lehiaketan: apirilaren 7an, Gabiriako Osinalde sarian, eta apirilaren 8an VIII. Orixe sarian. Bi sarietako bakoitzean 18 bertsolari aritu dira. Sei laguneko hiru kanporaketa jokatu dituzte, eta final bakoitzean beste bost bertsolarirekin jardun du Agirreazaldegik. Bere helburua, «saio politak egin eta entzuleak gustura lagatzea» zen, emaitzei horrenbeste begiratu barik. Eta badi-rudi bere helburuak lortzeaz gain, epaimahaia ere gustura laga duela.

Bestalde, hastear den Gipuzkoako txapelketan ere bigarren faserako sailkatuta dago Bergarako bertsolaria.

## Bergara Hiria 2001 argazki lehiaketa abian da

**Pol-Pol** argazki taldeak antolatzen duen lehiaketa horren XVII. aldia izango da aurtengoa. Euskadin bizi den edozein afizionatuk parte har dezake. Gaia libre izango da, eta zuri-beltezko edo koloretako argazkiak izan daitezke. Bestalde, edozein teknika edo prozedura onartuko da.

Lanak aurkezteko azken eguna maiatzaren 22a da, eta udaletxera eraman edo Errotalde kultura etxera bidal daitezke.

Erabakia maiatzaren 26an jakinaraziko dute. Lau sari izango dira: lehenengo hiru onenak eta herriko hoberena. Sari banaketa ekainaren 8an egongo dute.



Javier Fernandezek "Pushkar II" argazkiak hirugarren saria jaso zuen iaz.

**ezpeleta**  
Ostalaritzarako  
ehungintza

Ostalaritza eta egoitzetarako  
mahai-zapi eta industri-ehunak

San Lorentzo 1, Bergara  
Tf. 943 76 28 77/Tf. eta faxa: 943 76 17 09

**ETXEPARE-BILINTX**



**LIBURUDENDA**

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12 ☎ 943 76 40 50 BERGARA





## Aratusteak, 1990

**A**urtengo aratusteak aspaldi joan zitzaizkigun arren, argazki honen birtarte gogora ekarri nahi izan ditugu. Erretratua 1990ekoa da, eta sasoi hartan aratusteetako martitzenean primerako giroa izaten zen herriko kaleetan. Koadrila asko eta asko mozorrotzen ziren orduan, eta

argazkian agertzen den lagun taldea ere ez zen atzean geratzen giroa pizteko orduan. Erretratua Pertxa elkartearen ateratakoa da, eta honako hauek dira bertan agertzen direnak, ezkerretik eskumara:

**Goian:** Luis Abajo, Patxi Berraondo eta Maite Mozos.

**Bigarren ilaran:** Pablo Gallastegi, Ana Jesus Guridi, Beatriz Lazkano, Miguel Angel Alvarez eta Jose Mari Borja.

**Aurreneko ilaran:** Jose Mari Larrañaga, Elsa Rodriguez, Mertxe Laskurain eta Mari Karmen Garcia.

*Argazkia: Ana Jesus Guridi*

### Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldearen erreforma, pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60  
607 447 494  
943 76 59 59



## Zumelaga

JATETXEA

**58 urte zuen zerbitzura!**

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



## MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25



### Manufacturas LARRAÑAGA

- Lan-babeserako artikulua
- Seinaleztapena
- Lanerako jantziak

Leizeaga 1.  
Tf. / faxa 943 76 59 53.

## izeder

ARTE DEKORATIBOKO ikastaroak

943 76 71 05. Arruriaga 2

## PISZINETAKO TABERNA

Bokadiloak  
Pintxoak  
Kazuelitak

Boni Laskurain /g  
Tf. 943 76 53 55

### FRONTOI



## TABERNA

Fraiskozuri /g. 943 76 05 09





2001/2002

IKASTURTEA

San Roke Auzoa, 1  
ELGOIBAR  
Ta. 943744132  
F.943744153  
ingenieria@fmh.es  
www.fmh.es



cesi aquitaine  
poitou-charentes



**Makina Erremintaren Institutuak aukera ezin hobe eskaintzen dizu:**

## TXANDAKAKO ENPRESA INGENIARITZA

- ✦ **Enpresarekin lanean** garatutako lanbide proiektua
- ✦ **Lan-kontratua** prestakuntzaren lehen egunetik
- ✦ **Emaizta erakargarriak:** tituludun **%100ek lanean** dihardute eta horietatik %25ek zuzendaritzako ardurak daramatzate

### BILERA INFORMATIBOA

- APIRILAREN 25ean, asteazkenean, bilera informatiboa egongo da prestakuntzaren ezaugarriak eta sarrera-baldintzak azaltzeko: 18.30ean Makina Erremintaren Institutuko (IMHko) instalazioak bisitatuko ditugu eta 19.00tan bilera informatiboa hasiko da.

### MATRIKULA EPEA ZABALIK

- Maiatzaren 23a arte matrikula epea zabalik.

## AGOITZ tapiz denda

Leizariako San Lorenzo, 25. BERGARA. 649 112 675





# JAKINA

FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra

Zure etxeko sukaldea berritu eta altzariak jarri aurretik, zatoz Jakinara. **Diseinua, kalitate/prezio** erlazio bikaina eta **saldu osteko zerbitzu** ezin hobea eskaintzen dizugu.

Jakina,  
zurekin  
pentsatzen



**6** URTEKO  
GARANTIA

**FAGOR**   
**Sukaldeko altzariak**

JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeak

San Lorenzo Industri Poligonoa, Amillaga 10, behea. BERGARA.

Telefona: 943 76 03 30. Faxa: 943 76 02 91.